



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2018KO URTARRILAREN 19AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

#### **Mikel Agirrezabala Ezkurdia**

Etorri diren zinegotziak:  
Jesus Peñagarikano Labaka  
Itziar Arratibel Imaz  
Jon Mikel Iglesias Otegui

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko urtarrilaren 19an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO ABENDUAREN 28KO AKTAREN ONARPENA**

2017ko abenduaren 28an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko abenduaren 8an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO URTARRILAREN 18AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN INGURUKO ERABAKIAK**

#### **2.1 2018KO LAN-EGUTEGIAK ONARTZEA**

2018 urterako egutegia aurkeztu da.

Bestalde Kulturako administrariak kultur etxean ordutegi ezberdin bat aplikatzea eskatzen du.

2018ko urtarrilaren 18an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENEA.-** Onartzea alkatetzak proposatu duen egutegi ofiziala. Egutegi honetan jai egun bat aldatu behar da, abuztuaren 23aren ordez abuztuaren 27a jai egun izendatzen da.

**BIGARRENA :** Onartzea Kulturako administrariak aurkezten duen ordutegia hasiera batean irailerarte. Irailetik aurrera ikastaroen egutegira egokitu beharko da aldaketarik badago behintzat.

**HIRUGARRENA :** Erabaki honen berri ematea Kulturako administrariari.

#### **2.2- ALDI BATERAKO PROGRAMA BITARTEKO FUNTZIONARIO INFORMATIKOA IZENDATZEKO.**

Ikusi da Udal Idazkariak egin duen txostena (2018TXJU0001). Txostenaren arabera, Ibarako Udalak 39/2015 eta 40/2015 legeek ezartzen dituzten baldintza eta behar informatikoak betetzeko informatiko bat, aldi baterako programa bidez funtzionario izendatu beharko luke.

Gaur egun kontrataturik dagoen zerbitzu informatikoa (asteen egun batean ordu batzuk) motz gelditzen da, legeak eskatzen dituen derrigortasunak betetzeko egin behar den lan guztiari aurre egin ezinik. Bestalde, ezinbestekoa da informatiko honek kontratatuko den informatikoarekin elkarlanean lan egitea, programa bidezko funtzionario honek beharrezko den informazio guztia egoki bildu dezan.

Prozedura urgentziaz martxan jarri behar da, beraz, urgentziazko egoera deklaratu



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

beharko da.

2018ko urtarrilaren 18an eginiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea urgentziaz martxan jartzea aldi baterako programa bidez informatiko bat izendatzea 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen administrazio Prozedura Erkidearenak eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, ezartzen dituzten baldintza eta behar informatikoak gauzatzeko.

**BIGARRENA:** Tolomendirekin urtebeteko kontratua sinatzea, aldi baterako programa bidezko informatikoarekin elkarlanean jardun dezaten (Ibarrako Udaleko sare informatikoaren eta egoeraren berri eman eta informazioaren eskualdatzea egoki egin dadin).

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri ematea Tolomendiri.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta laurden direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut